

Minbiziaren aurkako elkarteak

Emakumez osatutako talde honek urteak daramatza minbiziaren kontrako sentsibilizazio eta prebentzio lanetan. Hala ere, diru-laguntzetan egon diren jaitsieraren ondorioz, hainbat ekimen alde batera laga behar izan dituzte.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Duela 15 bat urte sortu zen, Emakumearen Sustapenerako zentroan.

- Zenbat kide zarete?

Gorabeherak izan ditugun arren, 16-20 kide inguruk osatzen dugu elkarteak. Gainera, minbiziaren aurkako borrokarako diru-biltzea egiten dugunean, 4 edo 5 lagun gehiagok kolaboratzen dute gurekin. Esan beharra dago, gure elkarteak Bizkaiko Batzaren zati dela.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Minbiziaren kontrako borrokan ermuarraren parte-hartzea sustatzea; AECC-ren (Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarteak) egitaraua, ekimen eta baliabideak ezagutaraztea eta boluntarioentzat topagune izatea, besteak beste.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Orain dela bi urtera arte hilero biltzen ginen. Ordutik hona, ekimenen bat edo kanpainaren bat martxan jarri



behar dugunean biltzen gara, bi hilero gutxi gora behera. Hasieran 'Gure Etxea' eraikinean lokala genuen; orain, berriz, Emakumearen Topalekuan edo Lobianon egiten ditugu bilerak.

- Zeintzuk jarduera egiten dituzue?

Alde batetik prebentzio kanpainak egiten ditugu: Minbiziaren kontrako egunean (otsailaren 4an) eta Tabako gabeko mundu egunean (maiatzaren 31an) esaterako, eta diru-bilketak. Horretaz gain, nutrizioarekin zerikusia duten prebentzio tailerak egiten ditugu eskoletan (elikadura eta frutari buruzkoa egin dugu aurten San Pelaion), baina gero eta diru gutxiago dugu hitzaldiak eta tankera horretako gau-

zak egiteko. Bestalde, azpimarratzekoa da Merkatu Plazako merkatariek urtero antolatzen duten jaietan, pintxoak egiteko lehengaiak dohainik ematen dizkigutela. Elkarteak pintxo horiek saltzen ditu eta jasotako dirua AECCrentzat izaten da.

- Txangoak egiten dituzue?

Urtean behin Bizkaiko Elkarte guztietako kideekin bazkaria egiten dugu Bilbon, 400 lagunetik gora biltzen garelarik.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Elkarteko lehendakaria Consuelo Vega da (943031174, 665828734 edo consuelovega@hotmail.es). Bestela Emakumearen Topalekura joan daiteke edo Bizkaiko Batzara deitu (944241300).

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUTA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78